

## KOSTUEN EGITURA

Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen du, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela badakigu. Horretarako, hainbat arlotan sakabanatu dugu gure dirua, Gehien gastatuko dugun arloa langileen soldatetarako eta haien kontratazio izango da. Guretzako, garrantzitsuena langileen bizi-kalitatea da, eta haientzako hoberena nahi dugu. Haiek pozik lan eginez gero, beraien lana, hobe izango da eta ondorioz, bezeroei askoz gehiago gustatuko zaie. Gainerako diruaren beste zati handi bat, publizitaterako erabiliko dugu. Enpresa bat haztean, oso txikia da eta ez da batere ezaguna, ondorioz, publizitate kanpainetan asko inbertitu behar dugu, gaur egungo lehiari aurre egiteko. Informatika duen ezagutzak pertsonak kontratatu behar izango ditugu, aplikazioa garatzeko eta sortutako arazoak konpontzeko, bai aplikazioa garatzerakoan bai webgunean. Honekin batera, gailu informatikoak ere erosi behar ditugu, eta teknologia maila onekoa izatea funtsezkoa da app bat garatzeko. Denbora pasa eta gero kostuak gutxiko dira, bezero gehiago izango dugulako eta. Hau da, gastu batzuk izango ditugu baina aurre egiteko gai izango gara. Langileen prestakuntzan ere dirua inbertituko dugu, haien lan ahalmena handitzearren. Hala ere, diru kantitate txiki bat gordeko dugu edozein larrialdietarako edo arazoetarako. Enpresa hazi ahala, gure mozkinak handituko dira eta gure kostuak murriztu, ondorioz etekinak lortuko ditugu modu erraz batean.

